

URRIKO AZOKARI HASIERA EMATEKO

I.PINTXO LEHIAKETA

LEHIAKETAREN OINARRIAK



Lea-Artibaiko Landa Garapen Alkartea lehen sektorea bultzatzeko helburuarekin, ekimen desberdinak antolatzen ditu eskualdean. Horien artean, aipagarrienetariko bat, urriko Markina-Xemeingo azoka. Tradizio handiko azoka. Egitarauari hasiera emateko, bertoko produktuekin egindako **I. Pintxo lehiaketa** antolatu du alkartea.

1.- HELBURUAK

- Lehen sektorea ezagutarazi eta bultzatzea.
- Bertoko produktuen kontsumoa sustatzea
- Bertoko produktuekin egin daitezkeen pintxoaren merkaturatzea.

2.- NORI ZUZENDUTA

I. Pintxo lehiaketa hau, bertan parte hartu nahi duen edonori dago zuzenduta. Sukaldari profesional izan zein ez.

3.- SARIAK

2 pintxo desberdin izango dira **sartuak** eta bakoitzari **200€**ko saria banatuko zaio.

4.- AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

- Izen-emate fitxa.
- Aurkeztutako pintxoaren errezeta zehatza eta argazkia.

5.- BETE BEHARREKO BALDINTZAK ETA BALORAZIO IRIZPIDEAK

- Egiteko erraza izatea.
- Originalitatea.
- Sasoiko produktuekin eginda egotea.

- Lea-Artibain ekoizten diren produktuak.
- Gehienez 5 produktu erabili ahalko dira pintxo bakoitzean.
- Pintxoan ogia erabiliz gero, osagarri bezala kontatuko da.
- Pintxoaren errezeta zehatza eta argazkia bidaltzea.
- Errezeta erabiltzeko eskubidea ematea. Errezeta sarituak ostean Hamen Bertokoa taberna eta jatetxeetan eskaini ahal izango direlako irabazleak bestelako kontraprestaziorik jaso gabe.
- Pintxoen balorazioa Hamen Bertokoa-ko 3 Taberna/Jatetxeetako sukaldariek egingo dute.

6.- EPEAK

- I. Pintxo lehiaketako proposamenak aurkezteko epea: irailaren 5etik 20ra bitartean (biak barne).
- Irailak 19ko astean sarituak baloratuko dira eta irabazleei jakinaraziko zaie.
- Irailaren 28an Etxebarrian egingo den Prentsaurrekoan banatuko dira sariak. Pintxo irabazleak bertan egongo dira ikusgai. Peñascal S.Coop.-eko ikasleek sukaldatuta.

7.- INFORMAZIO ZABALAGOA ETA INSKRIPZIO ORRIA

BULEGOA:

Lea-Artibai Berrikuntza Gunea

Landa Garapenerako Alkartea

Xemein Etorbidea, 12-A

Markina-Xemein

Tfnoa: 946169088

EMAILA:

landagarapena@leartibaifundazioa.eus